

Joxe Torregarai

Xabier Mikel Errekondo

Bada beti zerbait gure herrian! Bi egunetik behin gutxienez esango nuke. Ederra da egiaz Usurbilgo herria. Eta esango duzu, bertakoa izanik nola ez du bada horrela pentsatuko... Askok dira maitasun horren errudunak, mendi, ibai, ibar, bazter, era guztietako ondare anitz bezain aberats, edo kalea bizitzen duten era guztietako ehunka kirol eta kultur jarduera... Baina, batez ere, pertsonak eta harremanak.

Kalean gora kalean behera lagunartean sarri diogu heltzen berba honi eta ondorio bera dugu ateratzen: ondare zabala bezain ederra daukagula inguruan, ziurrenik gainontzeko herriek nola, baina herri bat harritzarrek baino pertsonak dutela

egiten, gainontzekoak osagarriak direla, eta badiela pertsona jakin batzuk janzke- ra berezia ematen diotenak herriari.

Horietako batek orain gutxi utzi dio Kaxkoko kaleak ibiltzeari. Urteak ditu pasa pauso gero eta motelagoak ematen, txango astunagoak eta laburragoak makulua lagun. Ez zuen baina sekula galdu barre eta berriketaldirako grina. Goiti beheiti kaleetan jada bere gorpuzkera bikainarekin topo egiten ez badugu ere, jarraitzen dugu bere ibiliaren eta ibileren esentzia bihurria sentitzen tabernatoko eta taberna arteko giro ziprztinduetan. Betiko zaigu iltzaturik Gaztañagatik behera kale higatuetan, Joxe Torregarai Usurbilgo ondare humanoa. Zendu aurretik

nola jarraitzen du izaten egun. Behar zenean, esan beharrekoak esaten mingainean lihorik gabekoa eta zeharka botatzen maisu, baina, batez ere, umorearen errege hogeita lau orduz bihurri zertzeladak eransten esaldi orenen gibel bazterretik. Haur, gazte zein helduok gustukoa izan dugu Joxe antzezlearen eta txiste kontalariaren altzoa. Nola ez, edonori irribarrea pintatzen zigun pintzel magikodun margolari artixta izanik.

Usurbilgo Olentzero peto-petoa, egun hauetako aitzakiapean zakuka pintzel banatu ditukela nabari duk kaleetan...

Plazer galanta izan dek Joxe!

Betiko gurean haiz kale higatuetan goiti beheiti. •

Baserriz baserri kantari

Maidar lantzi

Beran Urteberri bezperan baserriz baserri abesteko ohiturak hogeitau urte bete ditu. Bi urte dira elkartu nintzela eta etxean bezala sentitu naiz, ia 30 lagunera ailegatu den taldean eta etxeetan.

Landetatxon izaten da hasiera, trikiti doinu alaiekin. «Hementxe gaude etorri gara urteroko modu beran/ legiarekin kunpli dezagun urte berriaren bezperan». Zintzurak berotu gabe, koplaren lehen puska ez da kasik entzuten. Baina segituan hartuko dugu martxa. Baserrietan zain-zain daude, mahaia jan-edanez ongi hornitua, etxeko zapatilekin solaserako gogoz. Gu baserriar jantzita gatoz, gazte kuadrilla ederra eurengana hurbildu eta lotzen gaituen sokari eusteko asmoz. Tri-

kitilari eta pandero-jole finez gain, bertsolari zirikatzaileak ere baditugu, etxez etxe gehiago.

Illekun Borda, Garatxe, Bordaberri, Zigaradi, Uainborda, Premosa, Gorostipal, Balkezene eta Luxaspi. Magikoa da ibilbidea, are gehiago iluntzean, ilargia mehe eta izarrak lodi-lodi mendian oinez ibiltzean. Baserri bakoitzak ditu bere jende, ezau-garri eta kodeak, eta poza ematen du deskubritzeak, nobedadeak zein beti errepikatzen diren ohitura eta elkarrizketak. Hazten ari dira Landetatxo eta Garatxeko umeak, zaldiak ekarri dituzte Gorostipalara eta bere izena aipatu orduko etorri zaigu hanka tartera Bordaberriko txakur itsusia. Kategorikoa izan da Zigardiko dantz saioa, atariko argi gorriaren argitan, eta

Uainbordako haurra eta gure taldekoa elkarri eskua emanda egon dira denbora osoan, sekretutxoak erraten belarrira. Zer kontatuko zioten batak bertzeari?

A ze batasuna sentitzen den kantu zaharrek elkarrekin kantatzen, herriari, euskarari... baita emakumeoi ere. Lehenengoz neska gehiago ginen mutilak baino eta "Itziarren alaba" abestu dugu indartsu, mutilak isilik, aditzen zirela.

Hunkigarria izan da baserriarrek gurekin batera kantatzea, eurak ere irriz eta gozatzen sumatzea, oparitutako loreekin kontent. Sukaldea komuna hippy bihurtzen utzi diguten Balkezeneko Rufina eta Ramonek kopla bereziak ere jaso dituzte, 50 urte egin baitituzte ezkondata. Milesker guzietan eta ez daitezela kantuak isildu! •